

Bilboko Arte Eder Museoa "Ama Birjina, Jesu Kristo eta santuak"

Erakusketa honetan badira 118 artelan, ia guztiak erlijiosoak, bereziki margolanak eta eskultura lanak, baina baita marrazki eta urregintza piezak, denak Aragoi inguruan egindakoak, XV-XVI mende bitarteetan.

XV. mendeak Aragoi aberastasun aro bati hasiera eman zion, Pizkundearen loraldia baino lehen. Aretoetara sartu eta berehala Nazioarteko Gotikoaren hainbat lan aipagarri aurkitzen ditugu, horien artean Blasco de Grañen-en Maria, zeruetako Erregina (1437-39), eta baita haren tailerretik ateratako erretaula baterako margolanak ere, Arte Ederretako museoaren bildumako altxorretako batzuk: perspektiba jostagarria, urrezko hondoen erabilera, pertsonaien gorpuzkera eta aurpegi zarpailek oraindik gotikoan gaudela adierazten digute. Baina areto horretan bertan daukagun Bartolome Bermejoren Santa Engraziaren zigorraldia-k (1474-77) ildo berriak ageri ditu, hots, perspektiba landua, espazio arkitektonikoarekiko interesa, figuren mugimendua.

Aretoan eskumatara, Gotikotik Pizkundera doan eboluzioak aurrera jarraitzen du. Pizkundera berandu heldu zen Espainiara, eta astiro eta modu azalekoan, alegia, teoria barik, soilik formalki. Tradizio gotikoa eta Pizkundeko berrikuntzak uztartuta, XV. mendean finkaturiko ildoak jarraituz, arteak -bereziki eskulturak- loraldi handia izan zuen Aragoi, hurrengo urteetan, funtsean, Elizaren eta botere politikoaren mezenasgoari eta kanpotik etorri ziren ideia artistiko berriei esker. Bestalde, kontuan hartzekoa da orduan Espainia Europako politikagintzaren ardatz zela, baina kulturalki Italia eta Flandriaren menpe zegoela, eta European barreiatu zituen enbaxadoreek eta gortera hurbildu artistek ekarri zizkion berrikuntzak.

1500 inguruan, Zaragozan Karlos I.aren gortearen itzalpean, eredu berriak agertuz joan ziren, Antzinaroko Laocoonte edo Michelangelo garaikidearenak lez. Hori frogatzen duten margolan ugari daude ikusgai erakusketan, baita Damian Forment-en alabastrozko lan asko ere. Ikusgarriak dira, halaber, areto txiki batean dauden erretauletarako egur polikromatuzko eszenak.

Jarraitu ahala, segituan atzematen dira eredu rafaelistak: argia, gorputz anatomia landua, perspektibaren erabilera. Aipagarriak dira, alde horretatik, Juan de Juanes edota Jeronimo Cosidaren lanak (Noli me tangere, adib.), zeintzuek Pizkunde aragoiarrari bide berri bat ireki zioten. Bestalde, Andres Marcuello Sanchez zilarginak eta Jeronimo Cogida pintoreak elkarlanean egin San Blasen bustoa eta erlikia ontzia, handia bezain landua eta aberatsa

da. Juan Antxieta eskultore azpeitiarrak, berriz, korronte erromanista ezagutarazi zuen Aragoi, baina batez ere Kristo gurutziltzatuak zizelkatzen egin zen ospetsu, eta Bilbon horietako bat dugu ikusgai.

Pizkundeko kulturakoa da erretratua genero autonomo lez lantzea, Villahermosako dukearen inguruko pintoreenak kasu: italiar eta flandiar eragina argia da. Badira kanpotik ekarritako lanak ere. Bukaeran Aragoiko urregintzaren etsenplu batzuk ikus daitezke, bai erabilera liturgikokoak (ekisaindua, erlikia-bustoa, prozesio gurutzea) zein mahaiko lan profanoak (pitxer, iturri eta kopak), benetako eskulan bikainak.

Erakusketa tradizional baten aurrean gaude, eta ondo betetzen du bere egitekoa -argiztapen egokia, katalogo zehatzak eskura-; halere, informazio pedagogikoagoaren falta sumatzen da, esaterako, mapa geografikoak orain bost mendeko Aragoi kokatzeko, edota artelanen jatorrizko testuingurua ezagutzeko grafikoak, erretauletako piezen kokapena, adibidez. Dena den, oro har, erakusketa ongi antolatua dago, eta ez du inor engainatzen. Kara joaten denak badaki zer aurkituko duen: Jesu Kristoren nekaldiko eszenak, Ama Birjinak, infernua, santu salbatzaileak, batzuk ilun eta aspergarriak, beste batzuk biziki ederrak. Funtsean, Aragoi emaniko Gotikotik Pizkunderako eboluzioa erakusten duen proposamena da. Ez da nekagarria, bisita atsegina da, ongi eta lasai ikustekoa.

Arte erakusketaz gainera, historiako eskola bat ere bada, artea garai bateko balioen ispilu baita, eta, hortaz, baita garai bat ezagutu eta hurbilago izateko bidea ere. Artelanen edertasunari eta agertzen duten trebezia artistikoari erreparatzea ez ezik, ikusleari jarrera ireki eta kritikoa eskatu behar zaio, egiaz iradokitzailea izan baitaiteke Mendekostea zein infernua irudikatzen duen irudi bati begiratu patxadatsu eta gogoetatsua ematea, irudi eta balio erlijiosoen beren garaian (eta egun) izan zituzten inplikazio guztiei buruz hausnarketa egiteko, kasu. Hala eginik, bada, Aragoiko Pizkundeaz jarduten duen erakusketaz gozamen eta ezagutza aberasgarriagoa lortuko dugu.